

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MOREDA ARABAKO UDALA

Behin betiko onestea 2024ko aurrekontu orokorra

Bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuen otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan xedatutakoarekin, eta ez denez inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu 2024ko aurrekontu orokorrari hasierako onespena eman zion erabakiaren aurka, aurrekontu hori behin betiko onetsita geratzen da. Hona hemen laburpena, kapituluka:

GASTUEN EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA (EURO)
I. Langile gastuak	143.550
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak eskuratzea	104.515
III. Finantza gastuak	164
IV. Transferentzia arruntak	21.316
V. Kreditu orokorra	0
VI. Inbertsio errealak	77.900
IX. Finantza-pasiboak	0
Gastuen egoera, guztira	347.445 euro

DIRU SARREREN EGOERA

KAPITULUA	ZENBATEKOA (EURO)
I. Zuzeneko zergak	79.100
II. Zeharkako zergak	7.000
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	15.495
IV. Transferentzia arruntak	162.452
V. Ondare sarrerak	13.598
VII. Kapital transferentziak	69.800
Diru sarreraren egoera, guztira	347.445 euro

Aldi berean, eta bat etorri apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 16. artikuluan ezarritakoarekin, erakunde honetako lanpostuen zerrenda ematen da argitaratu eranskinean.

Udalaren aurrekontu orokorra behin betiko onesten duen erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Moreda Araba, 2024ko azaroaren 22a

Alkatea
MARA GARCÍA DÍAZ DE CERIO

I. eranskina

1. Karrerako funtzionarioak.

1.1 Estaturako gaikuntza dutenak.

Lanpostuaren izena: idazkari-kontuhartzailea.

Administrazio egoera: bitartekoa.

Lanbide kategoria: teknikariak.

Arduraldia: ehuneko 50, lekorako eta Moreda Arabako udalen elkarte.

Taldea: A1.

Maila: 25.

Berariazko osagarria: 9.846,20 euro.

Hizkuntza eskakizuna: 4. Derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31.

2. Langile lan kontratudunak.

2.1. Lan kontratu mugagabeak.

Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea.

Administrazio egoera: jardunean.

Lanbide kategoria: administrariak.

Arduraldia: ehuneko 57,14.

Taldea: D.

Maila: 18.

Hizkuntza eskakizuna: 1; derrigortasun data: 2017ko abenduaren 31.

Lanpostuaren izena: garbitzailea.

Administrazio egoera: jardunean.

Lanbide kategoria: zerbitzu bereziak.

Arduraldia: ehuneko 30.

Taldea: E.

Maila: 13.

Hizkuntza eskakizuna: 1, derrigortasun datarik gabe.

Lanpostuaren izena: zerbitzu publikoetako behargina.

Administrazio egoera: jardunean.

Lanbide kategoria: zerbitzu bereziak.

Arduraldia: ehuneko 100.

Taldea: E.

Maila: 13.

Hizkuntza eskakizuna: 1, derrigortasun datarik gabe.

II. eranskina

Bat etorriTok Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.5 artikuluan ezarritakoarekin, osorik argitaratzen da udal korporazioko kideen kalte ordainen eta bilkuretara joatearen gaineko erabakia:

Ordainsaria alkatea osoko bilkuretara joateagatik: 240,00 euro.

Ordainsaria zinegotziak osoko bilkuretara joateagatik: 36,00 euro.